

2022-2023 IKASTURTERAKO IZEN-EMATEA, ORDUTEGI AUKERA ETA MATRIKULA

Izen-ematea

Baldintzak

Sarbide adin minimoak:

Euskal Dantzak: 2016/12/31rarte jaiotako pertsonak.
Musika hasiera: 2015 urtean jaiotako pertsonak
Gainontzeko ikasgaiak: 2014/12/31rarte jaiotako pertsonak
Abesbatza: 18 urtetik gorakoak.

Alboka, gaita, perkusio, trikitixa, txistua, txirula eta abesbatza ikasgaietan izena emandako pertsona guztiek nahitaezkoa izango dute **Musika Lengoaian izena ematea**.

Salbuespenak:

- 1- Agirien bitartez gutxienez hurrengoak egiaztatzea:
 - I. 18 urtetik beherakoak: Musika Lengoaia (Solfeo) 5.maila ikastetxe ofizial batean gainditu izana.
 - II. 18urtetik gorakoak: Musika Lengoaia (Solfeo) 3.maila ikastetxe ofizial batean gainditu izana.

2- Agirien bitartez ikastetxe ofizial batean Musika Lengoaia ikasketak egingo dituztela.

Ordutegi aukeraketaren unean aurkeztuko da ziurtagiria.

Musika Lengoaian bakarrik matrikulatzeko interesa duten pertsonak musika ikastetxe batean musika tresna ikasketak egiten ari direla edo abesbatza baten partaide direla egiaztatu beharko dute.

Aurretiko ezagutzak izanez gero Euskal Dantzak eta Musika Lengoaia ikasgaietan, **maila froga** egingo zaie izen-ematean eskatu duten pertsonari. Eskatu ezean, lehenengo mailan sartu egingo dira. Gogoan hartu, izen-ematean eskatu beharreko kontua dela.

Izen-emate epea (eskaera berriak): maiatzaren 2tik 22ra (biak barne)

Internet bidez Udal Webean / Folklore Akademia / Izen-emateak.

Presentzialki Akademiako Idazkaritzan, Musika Etxea (San Antonio, 14). Astelehenetik ostiralera 10:30etatik 13:30etara eta 17etatik 19:30etara (ostiral arratsaldetan ezik).

Zozketa

Maiatzak **24**an 12:00etan Musika Etxean izango den zozketa publikoak, hurrenkera alfabetikoz honakoak ezarriko ditu:

- **2021-2022 ikasturteko ikasleagoaren kasuan:** ordutegi aukeraketarako hurrenkera.
- **Eskaera berrien kasuan:** hutsik geratutako tokien arabera, onartutako pertsonen aukeraketarako hurrenkera. Izen-ematean bi ikasgaietan aukera eginez gero adierazitako lehentasun hurrenkera ere kontuan hartuko da.

Ordutegien hautaketa

Maiatzaren 31tik **hasita** aurreko urteko ikasleentzat eta ekainaren 6tik ikasle berrientzako.

▪ 2021-2022 ikasturteko ikaslegoa

- Ordutegi aukeraketa soilik telefonoz egingo da.
- Aukeraketa egiteko data eta ordutegien zerrenda maiatzaren 16an argitaratuko da Udal Webgunean, Inikan eta Musika Etxeko iragarki-taulan.
- 2021-2022 ikasturteko ikasleagoak lehentasuna izango du, eskaera berriak egindakoen aurretik, aurreko ikasturtean matrikulatuta egon diren ikasgaietan.
- 2021-2022 ikasturteko Musika Hasierako ikasleagoak musika tresna ikasgaia eta izen-emate baldintzen arabera beharrezkoa den Musika Lengoia ordutegi aukeraketan lehentasuna izango du eskaera berrien aurretik.
- Musika Lengoian hasi nahi duen 2021-2022 ikasturteko ikaslegoak (Musika Hasierakoak izan ezik) ordutegi aukeraketan lehentasuna izango du eskaera berrien aurretik.

▪ Eskaera berriak (onartutako pertsonak)

- **Euskal Dantza.** Maiatzak 30ean 12:00etatik aurrera ikasgai bakoitzean onartuak izan diren pertsonen erlazioa argitaratuko da (Musika Etxea: 945 162602 eta 010), ordutegi aukeraketarako egokitu zaien egun eta orduarekin batera.
- **Gainerako ikasgaiak.** Ekainak 8an 12:00etatik aurrera ikasgai bakoitzean onartuak izan diren pertsonen erlazioa argitaratuko da (Musika Etxea: 945 162602 eta 010), ordutegi aukeraketarako egokitu zaien egun eta orduarekin batera. Halaber, zozketak ezarritako ordenean eta izen-ematean adierazitako lehentasun hurrenkera kontuan harturik itxarote zerrenda ere argitaratuko da.
- Musika tresna ikasgaietan 2011/01/1etik aurrera jaiok lehentasuna izango dute.
- Eskatzailea edo bere ordezkoa, zerrendatan zehaztutako deialdi bakarrean aurrez-aurre agertu behar da. Eskatzailea edo bere ordezkorik egon ezean ez da inongo erreserbarik egingo. Telefonoz ere ezingo da egin.
- Euskal Dantzak eta Musika Lengoairako eskaerak adina eta aurretiko ezagueren irizpideen arabera taldekatuko dira, talde bakoitzerako ordutegiak aurrez ezarri direlarik.

Matrikulazioa

Matrikula ikasgai guztietako ordutegiak egiaztatu eta onartu ondoren egingo da.

Ordutegia aukeratu ondoren ikaslegoari **erabiltzaile** eta **pasahitz** bat emango zaio INIKARA sarbidea izateko eta matrikula bideratzeko, informazio guztia birpasatu eta gero matrikula onartzuz.

Matrikula berrestean, ondorengoa onartuko da:

- Adierazitako ikasgai eta ordutegietara joateko konpromezua.
- Indarrean dauden tasen ordaintzea ezarritako epeetan.

Matrikula epea (plazaren onartzea) **2022ko ekainak 23an** bukatuko da.

Tarifak

2022/2023 ikasturtea	<i>1 ikasgai</i>	<i>2 ikasgai</i>	<i>3 ikasgai</i>	<i>4 ikasgai</i>	<i>Taldeak</i>
Matrikula	54,32 €	75,96 €	97,71 €	119,45 €	54,32 €
2 kuota	54,32 €	75,96 €	97,71 €	119,45 €	

- Kategoria arrunteko familia ugariak matrikulan eta kuota bakoitzean %50eko deskontua izango dute. (Taldeetan izan ezik)
- Kategoria bereziko familia ugariak dohaineko matrikula izango dute. (Taldeetan izan ezik)

Ikasturte bakoitzeko prezioak Ordenantza Fiskaletan, Udal Zerbitzuak Eskaini eta Jarduerak Burutzeagatiko Prezio Publikoak atalean xedatu egingo dira.

Ordaintzeko modua

INIK aplikazioan, eta behin matrikula onartuta, ordainketa bideratzeko beharrezkoak diren datu guztiak eman beharko dira. Ordainketa **hiru epetan, banku helbideratzearen bidez** egingo da.

Lehenengo kuota, matrikula moduan, 2022eko uztailako lehen egunetan kobratuko da.

Gainontzeko beste bi kuotak 2022eko urriko hasieran eta 2023ko urtarrileko hasieran kobratuko dira.

Itxarote zerrenden kudeaketa

Libre geratutako plazak, beti ere zozketak ezarritako ordenean, modu pertsonalizatuan eskaintzen joango zaizkie itxarote zerrendako eskaerei. Prozesu hau uztaila eta irailean egingo da.

Uko egiteak eta itzultzeak

- Baja 2022/09/02a baino lehen jakinarazten bada, matrikula moduan ordaindutako zenbatekoa itzuliko da, matrikularen eskubide guztiak galduz.
- Ikasturtean zehar ikaslegoak bere plazari uko eginez gero, kuotaren bat kobratu baino lehen, ez zaio beste erreziborik igorriko, matrikularen eskubide guztiak galduz.
- Matrikula edo kuotaren baten itzultze edo ez ordaintzea emanez gero kontuan kobratze datatik 58 egun pasata baja emango zaio, matrikularen eskubide guztiak galduz.

* Klaseak 2022ko irailaren 8tik aurrera hasiko dira.